

Kirol federatu euskaldunentzako deskontuen Euskal Kirolariak klubaren sorrera

**EKFB erakundeak erosketetarako eskaintzen klub bat sortu du
www.euskalkirolariak.eus webgunearen bidez, federazio batekin
atxikitako kirolari euskaldun guztientzat**

Unión de Federaciones Deportivas Vascas-Euskal Kirol Federazioen Batasuna erakundeak eskaintzen dituen zerbitzuen katalogoan, gaurtik aurrera deskontuen Klub baten sorrera eransten da kirolari euskaldun guztientzat Euskal Kirolariak izenaren eskutik.

Euskal Kirolariak eremuan erosketa mota orotarako eskaintza eta deskontu mota guziak aurkitu ahal izango dituzue, arropa markarik ospetsuenetan, teknologian hala nola bidaietan, hoteletan, garraiotan edo jatetxetan. Abantailen katalogo bikaina kirolarientzat federatuak izateagatik soilik, bai on line erosketetarako eta bai dendetan egiteko erosketa fisikoetarako. Klubaren erabilera egiteko, soilik www.euskalkirolariak.eus webgunera sartu behar da; bertan kirolariak bere erosketa abantailatsua erraztasunez egiteko modua aurkituko du eta erosketa eremuetan bere kupoiak aurkezteko mugikorretik sarbidea izango du.

Klub honen asmoa da kirolariari zerbitzu bat gehiago ematea, federazio lizentzia batekin kontatzeagatik; kirolariak, horrez gainera, derrigorrezko kirol aseguruarekin eta federazio bakoitzeko zerbitzu propioekin kontatuko du, bere erosketetan deskontu interesgarriak dakartzan klub bateko kidea izateko aukerarekin.

Zerbitzu honek ez du inolako kosturik edota lanik eragingo federaziotan, guztia EKFB-tik koordinatuko baitugu; alditan zuen federazioarekin kontsultatuko dugu *Euskal Kirolariak* klubean inskribatuak bertako kideak zaretela egiaztatzeko.



Berri hau zuen ohiko komunikabidetan barne hartzea, esterako federazioko webgunean, sare sozialetan, eta federazioa osatzen duten klubetan hala nola kirolarien artean jakinaraztea eskatzen dizuegu.

Euskal kirolariarentzat abantaila modura sortutako Euskal Kirolariak klub honen funtzionamendu egokiak halaber onura ekarriko du epe laburrean kirol federatuaren arloan, beraz, gure ustean interesgarria izan liteke federazio guztientzat kirolariarentzat doakoa den zerbitzu baten sustapena egitea.